

## ZALDIBIAN ENERGIA KOMUNITATEA ERATZEKO PROZESUA

### Lehengo saiko akta (Ekainak 5)

#### ONGIETORRIA ETA SAIOAREN KOKAPENA:

Aholkularitza teknikitik ongi etorria ematen zaie bertaratuei. Zaldibian Energia komunitatea sortzeko prozesua aurkezten da.

Prozesuak, gaurko saioaz gain beste hiru bilera izango dituela argitzen da:

- Ekainak 19
- Uztailak 10
- Irailean (data zehaztu gabe)

Ondoren saioaren helburuak azaltzen dira:

- Udaletik energia burujabetzarantz eman diren pausoen berri ematea eta energia komunitatea udal estrategia orokorraren baitan kokatzea.
- Energia komunitateen inguruko oinarrizko ezagutza eskuratzea (abiapuntu partekatu bat)
- Elkar-entzun eta zalantzak argitzea.

#### AURKEZPEN ERRONDA:

Bertaratuen aurkezpen erronda egiten da, saiora zerk motibatuta gerturatu diren galdetzen zaie. Oro har, guztiek aipatzen dute Energia Komunitateen inguruan ezagutza gehiago izateak motibatu dituela. "Bolo-Bolo" dabilen gaia izanik zehazki zertaz ari garen ezagutzeko borondatea erakutsi dute. Bestalde Zaldibian trantsizio eko-sozialean ematen ari diren pausoak ezagutzeko interesa ere agertu da, energiaren ekoizpenean autonomia irabaztearen gaia ere azpimarratu da.

Amaitzeko, energia komunitatean parte-hartzeak onura ekonomikoak ekarri ahal dituen ere aztertu nahi du zenbaitek.

#### ZALDIBIAKO UDALA: ENERGIA BURUJABETZAN IBILBIDEA:

Zaldibiako alkateak hartzen du hitza. Herrian energia gaietan azken urteetan egindako lanaren berri ematen du. (*Aktarekin batera alkatearen aurkezpena*).

Alkatearen aurkezpenean ikus litekeen moduan, oro har, Zaldibiako Udalak legez dagozkion "etxekolanak" oso aurreratuta dauzka. Legeak ezartzen duenez, Udal eraikinen kontsumoaren %32ak energia berriztagarriak izan behar dira, Zaldibia ia %40aren bueltan dago.



ZALDIBIAKO  
UDALA



Udaletik eman dira pausoak oso ondo baloratzen badira ere, alkateak etengabe hobetzen jarraitzearen garrantzia azpimarratzen du, alde batetik kontsumoa murriztuz, eta bestetik berriztagarrien kopurua igoz.

Hobetze dinamika horren baitan kokatu du Energia Komunitatea eratzekeo prozesua. Argi utzi du energia komunitatea herritarren tresna dela, baina Udala prest dagoela bere sustapenean bidelagun izateko.

### **ENERGIA KOMUNITATEAK: ZERTARAKO, ZERGATIK eta NOLA:**

Nazertek Aholkularitzako Josebak hartzen du hitza. *(Aktarekin batera Nazertek-en aurkezpena).*

Energia komunitatea zer den azaltzen du; Legezko markoa azaldu ostean, energia komunitateen onuraz aritzen da. Energia komunitateak osatzeko prozesuen ikuspegi nagusia azaldu ostean, bi adibide konkretu azaltzen ditu: Ataungoa eta Itsasondoko Hitzar Kooperatibarena.

Bere azalpena amaitzeko beste eredu batzuk ere azaltzen ditu: Ekiola eta GFA sustatzen ari den energia komunitateena.

Azalpenaren ostean gogoeta-galdera erronda abiatzen da.

- Kide batek galdetzen du energia komunitateetan soilik instalazio fotoboltaikoez ari ote garen. Energia Komunitateari guk nahi adina helburu / funtzio jarri dakizkiokegula aipatzen da (aholkularitza energetikoa, pobrezia energetikoa, mugikortasuna, etab.). Hori bai, geroz eta zeregin gehiago jarri, kudeaketa konplexuagoa gertatzen dela azpimarratzen da.
- Beste kide batek plakak egiteak eragiten duen kutsadura jartzen du mahai gainean. Hau da plakak eraikitzeak sortzen duen CO2a. Argitzen da, kutsadura hori 14-15 hilabetetan "konpentsatzen dela).
- Plakak egiteko erabiltzen den silizioa ere aipatzen da. Lurzoruko mineral ugariena da, beraz, bere ustiapenarekin ez legoke arazorik. Erronka nagusia, oro har, plaken birziklapenarekin dago.
- Plakak teilatuetan eta lur-zoruan jarri daitezkeela aipatzen du beste kide batek. Momentuan teilatuen aldeko apustua egiten da Udaletik. Lurzoruaren kasuan, lurtean jartzekotan, balio ekologikorik gabeko lurrak izan behar dira. Biloreren lurrak aipatzen dira, baina lur hauek enpresarenak izanik, momentuz Udaletik ezin da ezer egin.
- Zaldibian dauden ur-jauziak aztertu diren galdetzen du beste kide batek. Mikro-elektrika txikiak jartzeko aukerarik ote dagoen galdetzen du. Azterketarik ez dela egin aipatzen da, zailtasun handiak ikusten dira Kontzesioak eskuratzeko.

### **SAIOAREN ITXIERA:**

Azalpen eta galdera erronda bukatuta parte-hartzaileei eskerrak emanez ixten da saioa. Gogorarazten da Ekainaren 19an izango dela bigarren bilera. 1go saioaren akta eta dokumentu osagarriak Udalaren webgunean jarriko direla adosten da.